

Xuxen III GPL lizentziarekin

Egilea dooteo
2008/05/12
Aldaketa 2008/05/15

Xuxen III zuzentzaile ortografikoa Eusko Jaurlaritzako zerbitzarian azpalditik eskuragarri zegoen. Baina orain dela gutxirarte Xuxen-en eskuliburuan Creative Commons lizentziarekin kaleratzen zela aipatzen zen. CC lizentzia zela eta Xuxen ezin zen Debian bezalako banaketa batean sartu.

Pasa den astean ordea <http://www.euskara.euskadi.net> zerbitzariko Xuxen-i dagokion atala eguneratu egin dute, eta ondorioz lizentzia berri batekin jarri dute Xuxen: GPL lizentzia.

GPL lizentzia agertzen duen PDF fitxategia hemendik deskarga daiteke:

Xuxen.pdf

GPL lizentziak baimentzen du Xuxen tresna Debian banaketan sartzea, baita OpenOffice.org aplikazioan hedapen gisa ere prestatzea. Guzti hau kontutan izanda, software libreko euskal komunitateak Xuxen zuzentzailea bai Debian-en bai OOo barruan sartzea espero dugu. Eta noski espero dugu IXA/Eleka-ren laguntzarekin ere kontaktzea :)

Mila esker IXA/Eleka-ri eta Eusko Jaurlaritzaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari tresna hau libre jartzeagatik.

Estekak:

- IXA, <http://ixa.si.ehu.es/ixa>

- Eleka, <http://www.eleka.net/>